

LEIHOTIK BEGIRA

2018ko urtarriletik apirilera
ikusitakoaren islada

Maidar Urkitza Villegas

“Nire logelako leihotik ez dut paisaia ederrik ikusten. Auzoko parkea, zubi bat, errepidea eta aurreko etxea baino ez ditut ikusten” . Hori erantzuten nuen txikitan eskolako irakasleek edo beste norbaitek etxetik zer ikusten nuen galdetzen zidatenean. Egia esateko, ez nuen ikusten nuen paisaia gustuko. Baina ez nekien leiho horrek zer-nolako aukerak emango zizkidan.

Nahiko gaztetatik argazkigintzarekin experimentatzen hasi nintzen. Hasieran lagunei edo familiari argazkiak ateratzen nizkien kamera ziztrin batekin. Baina gutxika-gutxika kamera berriak erosiz eta denbora gehiago inbertituz, argazkigintza nire bizitzan leku handi bat izatera heldu da. Orain dela urte batzuk kamerarako lente berria erosi nuen, potentzia handiko zoom-a zuena. Gogoratzen dut lagunei zelan ateratzen nizkien argazkiak nire leihotik. Zoom-arekin guztiz hurbiltzen nintzen. Beste hainbatetan, aurrean dudan zubitik igarotzen zen jendea begiratzen nuen, kamera teleskopio bat bailitzan eta jendea ilargia. Baina denborarekin hori egiteari utzi nion.

Urte honetako hasierara arte.

Urtarrila izango zen. Arratsalde batean, kasualitatez, leihoa irekitzen nengoela, zubi azpian neska bat ikusi nuen. Neska gazte bat, hamasei edo hamazazpi urte izango zituena. Neska hori lurrean jesarrita zegoen, manta bat gainetik zuen eta liburu bat irakurtzen zegoen. Hori ikusterakoan, eskale bat zela pentsatu nuen. Baina hobeto begiratu, dirurik eskatzen ez zegoela konturatu nintzen. Arraroa zen, benetan.

Baina are eta arraroagoa izan zen neska hori hurrengo egunean berriro ikustea. Berriro, egoera berdinean. Zubi azpian, mantapean, irakurtzen. Ezin nuen sinetsi. Nor zen neska hura? Zer egiten zuen hor? Eta, garrantzitsuagoa, zergatik? Eta zergatik nire etxe aurreko zubi azpian?



URTARRILAK 17, 17:15

Agian zoro bat naiz, edo erotuta egongo naiz, baina momentu horretan, kamera hartu eta argazki bat egin nion. Birritan pentsatu gabe. Zoom objektiboarekin ahal nuen gehien hurbildu nintzen eta kameraren botoia sakatu nuen. Egoera horren aurrean burutik pasa zitzaidan lehen gauza izan zen. Gizakiok naturaz dugun sen kuxkuxeroak eraginda, edo egoera ezezagun baten aurrean sentitu dezakegun emozioak eraginda, hurrengo egunean neska bueltatzea nahi nuen.

Eta horrela izan zen.

Neska hura zubi azpian irakurtzen ikusten nuen hirugarren eguna zen. Burua oraindik ere galderaz gainezka nuela, kamera hartu eta beste argazki bat bota nion. Zergatik? Ez dakit. Ez dakit zergatik bota nion bigarren argazki hori ere. Agian jendeak sinetsi nezan? Istorio arraro hori kontatzen nuenean sinesgarriagoa izateko. Edo agian argazki gehiago egiteko intentzioa izango nuelako eta detektibeen antzera aritzeko? Ez dut sekula jakingo zeintzuk izan ziren nire arrazoiak momentu horretan argazki horiek ateratzeko, oraindik ez bainenbilen gradu amaierako lanean pentsatzen. Baina halaxe egin nuen.



URTARRILAK 18, 17:30

Bigarren argazki hori ordenagailuan deskargatu nuen, eta aurreko egunean ateratakoaren parean jarri nuen. Ia ez zegoen ezberdintasunik. Egun berean aterata ziruditen. Artxiboen izena hartu, eta data eta ordua idatzi nien. Zergatik? Zertarako? Ze inportatu zuen noizko argazkiak ziren horiek? Agian argazki horiek benetakoak bihurtuko zituzten hitz eta zenbaki horiek. Agian hortxe zegoen proba guzti hori ez zela nire imajinazioaren fruitu hutsa. Dena den, momentuan ez nuen horretan pentsatu. Bi argazki nituen. Neska bera, egoera berean, egun desberdinetan.

Egun batzuk pasa ziren eta, nire bizitza pribatuaren gorabeherak zirela medio, etxera nahiko berandu heltzen nintzen eta dagoeneko neska ez zegoen han. Edo agian ez zen inoiz bertan egon. Ez dakit. Baina astelehen batean berriro harrapatu nuen zubi azpian irakurtzen. Ez nuen jakingo zer egiten zuen han neskak, baina egun horretan egoera hori ohikoa izango zela susmatu nuen. Kamera hartu eta hirugarren argazkia ateratzeko prest nengoen. Klik.



URTARRILAK 22, 18:30

Momentu horretan ideia bat izan nuen; neska horren istorioa ezagutuko nuela erabaki nuen, edo behintzat momentuan nekiena (hau da, ezer ez) baino zerbait gehiago jakin nahi nuela.

Otsailak 8 zen. Arratsalde horretan orduak eta orduak igaro nituen leihotik begira. Argazki bat edozein momentuan botatzeko asmoa izan barik, zerbait ezberdina egiten zuenean ateratzeko itxaroten nengoen. Bat-batean mutil bat hurreratu zitzaion. Hogei bat urte izango zituen, ez nago ziur. Mutila lasai-lasai pasa zen espaloitik ibiltzen. Zerbaitek bere harreta piztu zuen (eta baita nirea ere). Kamera prestatzen hasi nintzen.

Mutilak, atzera pausu pare bat egin zituen eta neskaren lekura igo zen. Klik. Apur bat makurtu eta neskari zerbait esan zion. Klik. Neskak buruarekin zerbaiti ezetz esan zion, irribarretsu, eta mutila berriro bere bidea hartu zuen. Klik.



OTSAILAK 8, 19:15

Otsailak 13. Neska arratsaldeko bostetan (gutxi gora behera) heldu zen, egun guztien moduan, geroago jakingo nuenez, eta zortziak aldera joan zen. Ordu tarte horretan, irakurtzen jardun zuen. Argazkiak horrela bota nizkion. Klik. Klik. Klik.



OTSAILAK 13, 17:15



OTSAILAK 13, 17:15



OTSAILAK 13, 17:15

Egun horretako argazkia ordenagailuan sartzean, data eta ordua idatzi ondoren, besteekin alderatu nuen. Eta, datua adierazgarria ez bada ere, ikusi nuena denboraren gogoeta ekarri zidan. Astearte horretako argazkian agertzen zen liburua, ez zen aurretik ateratako argazkietan agertzen zena. Baliogabeko xehetasuna da, noski. Baina momentura arte ez nintzen konturatu, liburua irakurtzen ari zela. Hau da, momenturen batean liburu hori bukatuko zuela. Eta horrela izan zen. Baina neskak beste liburu bat zuen esku artean. Eta zubi azpian zegoen berriro ere. Eta liburu hori amaituko zuen ere.

Liburua bukatu arren bueltatu bazen, noiz utziko zion etortzeari? Etortzeari utziko zion noizbait?



OTSAILAK 16, 19:20

Otsailak 16. Arratsalde euritsua izan zen. Neska aterkirik gabe agertu zen zubi azpian. Baina ez zegoen bustita. Betiko lez, lurrean jesarri, manta zabaldu eta irakurtzen hasi zen. Klik. Arratsaldeko zortziak arte. Betiko lez.

Horrela igaro zituen hurrengo egunak, zubi azpian irakurtzen. Eta horrela igaro nituen nik egunak, argazkiak ateratzen. Egun ezberdinetan, ordu ezberdinetan, momentu ezberdinetan. Baina beti egoera berean.



OTSAILAK 20, 17:45



OTSAILAK 24, 19:00



MARTXOAK 1, 20:00

Martxoak 5era arte.

Martxoak 5eko arratsaldea ezberdina izan zen. Egun horretan zerbait aldatu zen. Ez dut uste azaltzeko gai naizenik, baina sentrazioa ezberdina zen. Bostetan, betiko moduan, neska agertu zen bere betiko lekuan. Lasai-lasai, kameraren bila joan nintzen. Leihoan kokatu eta bisoretik begiratzen hasi nintzen. Bat-batean, neskaren burua apur bat biratu eta niri begira zegoen. Klik. Niri begira, edo kamerara begira. Bere begirada nire lantean zegoen. Gure begiradek topo egin zuten, lentea gure artean egon arren. Bere begiak eta nire begiak zuzenean topatzen.

Milisegundo horietan ez nuen erreakzionatu. Klik.



MARTXOAK 5, 17:50

Segundo pare bat behar izan nituen kameratik aldentzeko eta leihotik kentzeko. Momentuan oso urduri jarri nintzen. Ez nekien zer egin. Harrapatu ninduen. Nire bihotzaren taupadak arin baino arinago zihoazen. Bi argazki ateratzeko kapaz izan nintzen, baina ez nintzen ondo sentitzen.



MARTXOAK 5, 17:50

Espioia edo kuxkuxeroa sentitzen nintzen. Hurrengo egunean ezin izan nuen argazkirik atera. Hain lotsatuta nengoen, hain damututa nengoen, non ezin bainuela inondik indarrik atera argazkia egiteko.



MARTXOAK 5, 17:50

Baina ezinegon eta estutasuna ez ziren hasi baino egin.

Bi egun geroago, martxoak 8an, zubi azpitik pasa nintzen. Medikura joan behar joateko beharra nuen eta hortik azpitik pasa behar nintzen hara heltzeko. Ez nintzen konturatu neska seguruenik bertan egongo zenik. Zubi azpitik pasatzean, bertan zegoen, irakurtzen. Ni, burumakur, bere albotik pasa nintzen, urduri, nire aurpegia ikusi ez zezan.

“Ts, ts. Eh!” . Atzera begiratu nuen eta liburua albo batean zuen. Bere begiak niri begira. Ezinegona. “Zu zara leihotik argazkiak ateratzen dizkidana, ezta?” . Izerdia. Dardarka hasi nintzen. Birritan pentsatu baino lehen, buruarekin baiezkoa ematen ari nintzen. “Bihar etorri eta argazkiak atera ahal dizkidazu, hurbiletik. Horrela, gutxienez, prest egongo naiz” . Nire buruak berriz ere baiezkoa eman zion.

Ezin nuen argi pentsatu. Hainbat galdera nituen berari egiteko. Hainbat zalantza. Erreportariaren lana egin nahi nuen eta bere istorioari buruz galdetu. Zergatik zegoen han arratsaldero? Nor zen bera? Hainbat galdera. Eta galderak egiteko adorerik ez. Bertan izoztuta gelditu nintzen. Amets batean ere ez nukeen imajinatuko egoera horretan inoiz egongo nintzenik. Zer suposatzen da egin behar nuela?

Gau horretan buruari milaka buelta eman nizkion. Hurrengo egunean hainbeste galdera egin nahi nizkion... Ohetik altxatu nintzen eta galdera guztiak paper batean idazteari ekin nion. Prest nengoen. Argazkiak ateratzen nizkion bitartean galdetuko nizkion. Argi nuen. Hurrengo egunean istorio guzti honen harira helduko nitzen. Azkenean.

Baina ez zen horrela izan.



MARTXOAK 9, 18:25

Martxoak 9. Leihotik begiratu nuen. Bere txokoa hutsik zegoen. Berandu helduko al zen egun horretan? Elkartuko ginen egunean berandu helduko zen? Arratsalde guztia pasatu nuen leihotik begira. Ez zen agertu.

Eta ez zen berriro agertu.

Neska hura nor zen ez nuela inoiz jakingo pentsatzen nuen, edo zer egiten zuen arratsaldero zubi horren azpian. Nire buruan mila hipotesi nituen, bakoitzak gero eta fantasiatsua. Eta istorio edo hipotesi horiekin konformatu nintzen, lana neukan eta, azken finean, bizitza aurrera doa.

Baina goiz batean, etxeko egunkariak hipotesi guzti horiek ezeztu zizkidan.

Apirilak 1. Ez dakit zergatik baina egun horretan etxeko egunkaria irakurri nuen. Nire gurasoak kazetariak izanda, egunero egunkaria erosten eta irakurtzen dute. Nik, ordea, gutxi batzuetan zabaltzen ditut orrialde horiek. Etxeko sofaren gainean zegoen. Jesarri eta eskuartean hartu nuen. Irakurtzen hasi nintzen, uste dut portadan kontzertu baten berria zegoela eta horrek harrapatu zuela nire atentzioa.

Orriak pasa nituen, aurrera eta atzera. Denbora-pasak bete nituen. Orriak pasatzen jarraitu nuen. Eta bat-batean, neska ikusi nuen. Neskaren argazki bat egunkarian. Ia hilabete oso bat begiratzen egon nintzen neskaren aurpegia ezagutzeko gai nitzen, horrek dardara txiki bat eragin zidan, egia esateko. Neska jada ezagutzen nuelaren sentsazioa izan nuen, nik bera bai, baina berak ni ez.

Neskaren aurpegiaren argazkia zuen berrian gelditu nintzen. “Hallado en Bolueta el cadaver de la joven desaparecida hace tres meses” . Titularrak izoztu ninduen. Berri osoa irakurri nuen eta informazio guztia, zubi azpiko neskarekin bat egiten zuen. Denbora luze horretan neska hori ikusten nuen, neska hori zelatatzen edo “zaintzen” nengoen, auskalo. Nire sen kuxkuxeroagatik baino ez. Nik behatzen atzamar bat mugitu barik. Neska hori salbatu egin ahal nuen. Azken hilabete horietako berriak ezagutuko banitu, agian, neska hori desagertuta zegoela jakingo nuen, eta seguruenik bere bila zeudela. Bilaketan lagundu ahal izan nuen eta ez nuen ezer egin.

SOCIEDAD

Hallado en Bolueta el cadáver de la joven desaparecida hace tres meses

SUCESOS

■ El cuerpo de Sara García fue encontrado en el barrio bilbaíno de Bolueta la pasada madrugada por una pareja que avisó de inmediato a la Ertzaintza. No han tardado en identificar el cuerpo ya que la joven había desaparecido hacía dos meses. Sus padres habían puesto una denuncia de desaparición en febrero, cuando su hija no volvió a casa una noche. La policía había iniciado la operación de búsqueda, pero aún no había tenido resultado. Actualmente, están a la espera de los resultados de la autopsia que se le realizará mañana para determinar las causas de la muerte.

Los indicios y pruebas recabados por la Ertzaintza en el lugar de los hechos, apuntan a que la mujer recibió, al menos, tres golpes con piedras, algunas de gran tamaño, en la cara y el cráneo. Los investigadores no descartan la posibilidad de que pudiera existir un móvil de agresión sexual en el crimen y de que, al no acceder la mujer a las pretensiones del autor, este la hubiera matado.



Imagen de la joven, de su perfil en las redes sociales.

Una pareja la encontró muerta la pasada madrugada y dio aviso a la Ertzaintza

La víctima, Sara García, de 17 años, desapareció el pasado mes de enero, cuando había salido a dar un paseo. Su cuerpo sin vida fue encontrado la pasada madru-

gada, después de que una pareja la encontrara por casualidad, junto a un pabellón industrial situado en el barrio bilbaíno de Bolueta. La zona no es muy frecuentada por transeúntes normalmente.

El homicidio ha causado gran conmoción tanto en Bilbao, donde la víctima estudiaba y vivía con su familia. Sus padres, no han querido hacer declaraciones sobre lo sucedido. **[Josemi Etor]**

Mueren tres esquiadores españoles por una avalancha en Valais

■ Tres españoles han muerto y otros dos han resultado heridos en una avalancha de nieve ocurrida al final de la tarde de ayer sábado en el cantón suizo de Valais, según confirmaron hoy a Efe fuentes del Ministerio español de Asuntos Exteriores.

Por su parte, la Policía del Cantón de Valais, en Suiza, ha dicho que trabaja con la hipótesis de que los tres alpinistas fallecidos a causa de un alud registrado el sábado eran españoles, al igual que sus dos compañeros que sobrevivieron con heridas que no ponen sus vidas en riesgo.

"Partimos del principio de que las cinco personas que fueron arrastradas por la avalancha eran españoles, dos de las cuales han resultado heridas. Así nos lo indican las primeras investigaciones. Con respecto a las tres personas fallecidas, nos encontramos en la fase de identificación formal de las víctimas", ha manifestado a Efe el portavoz de la policía cantonal, Mathias Volken.

Indica que todavía no se ha escuchado el testimonio de los heridos en vista de que la priori-

dad es que r

médica que r
La Policía
investigación s
ha previsto, c
permita, reco
nes de los dos

Estaban esquiando en Fiesche y se cayó una travesía fuera

Asimismo, firma que los alpinistas mu- ser liberados. licia de Valais con las auto españolas en los trámites patriación.

El grupo contraba e Fiesch y la de Fiescheralp una travesía una zona fu ocurrió la av

Atzera begiratzen dut eta ez dut nire burua ezagutzen. Gaur, apirilak 20, oraindik ezin dut sinetsi gertatutakoa. Inoiz ez dut sinetsiko zerbait egin nezakeela neska horren bizitza salbatzeko, eta ez nintzela leihotik mugitu.